

## **KONTROL MOZIOA**

### **MERKATARITZA-GUNE HANDIEI BURUZKOA**

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga EH Bildu udal taldeko zinegotziek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko abenduaren 9an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

COVID-19 birusak eragindako pandemiak gogor kolpatu du merkataritza txikizkaria. Hala ere, gauza jakina da sektore horren gainbehera osasun krisiaren aurretik zetorrela, eta arrazoen artean, besteak beste, biztanleriaren kontsumo ohiturak edo merkataritza zentro handien zabalpena aipatu izan dira; biak ala biak elkarrekin harreman estuan dauden arrazoiak.

Udal gobernuko ordezkariak ere behin eta berriro errepikatu izan dute merkataritza txikizkariaren egoerak kezka sortzen diela, eta zentzu horretan, azken hilabeteotako batzorde eta udalbatzarretan ohikoa izan da Garapen Ekonomia eta Enpleguko zinegotzi ordezkari Marisol Garmendiari entzutea “gobernuak tokiko merkataritzaren alde” egiten duen lana eta esfortzua azpimarratzen. Eta, egitari zor, ez dira falta “tokiko merkataritza sustatzeko” udal gobernuak babestutako kanpainak. Horietako azkena da San Sebastian Shops-ek abian jarri eta Donostiako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailaren babesa duen “Oparitzeko, Donostia” izenekoak. Aldi berean, erosketa bonuen kanpaina bat jarri da abian Gabonetako erosketak egiteko hiriko ekialdeko saltokietan: Altza, Intxaurren, Larratxo, Mirakruz-Bidebieta, Herrera, Egia, Loiola, Txomin eta Martutene auzoetan. Udal Gobernuak jakinarazi duenez, “3.000 bonu banatuko dira ekialdeko 75

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

merkataritza establezimenduren artean, guztira, 40 bonu saltoki bakoitzeko. Bonu bakoitzak 15 €-ko salmenta balioa du eta horietatik, kontsumitzaileak 10 € ordainduko ditu eta Donostia Sustapenak falta diren 5€-ak jarriko ditu San Sebastian Shops-en. “

Testuinguru honetan, eta batzordeetara eramandako ekimenean adierazi bezala, arreta berezia eragin digu Garbera merkataritza zentroa berriz irekitzeak. 2021eko urriaren 29an, “Garbera Revolution” izeneko kanpainaren harira, merkataritza gune horrek azaroaren 24an egin zuen lehen irekiera berrian parte hartzeko gonbidapena jaso genuen. Biharamunean, berriz, Donostiako Udaleko Lehen Alkateorde Nekane Arzallus irekiera ekitaldi horretan egon zela irakurri genuen egunkarietan. Halaber, udal teknikariek proiektu horren sorreran egindako lana ere azpimarratu zuen. Bestalde, eta Garberaren zabalpenarekin batera, hiriko beste eremu batzuetan ere horrelako gune gehiago irekitzeko asmoek bere horretan jarraitzen dute, hala nola, Belartzan.

Eta arreta berezia eragin digula diogu, izan ere, dagoeneko gauza jakina eta frogatua baita Garbera bezalako merkataritza-gune handiek komertzio txikiari sortzen dioten galera. Irekiera berri edo zabalkuntza hori justifikatzeko, behin baino gehiagotan entzun dugun argudioa da bertako komertzio edo ostalaritzak ere lekua izango duela, baina bertatik pasatzea nahiko da ikusteko atzerriko multinazional kate handiak direla espazio berriko paisaian nagusi: McDonald’s, Foster’s Hollywood, edo Kentucky Fried Chicken. Bestalde, Marisol Garmendiak batzordean Garberaren zabalkundea balioan jarri zuen bertan ustez sortuko diren lanpostuak direla eta. Bada, Donostiak hamarkada batean komertzio txikiaren %22 galdu du, eta Garberaren eragina nabarmena izan den ekialdeko auzoetan, ehunekoa hori oraindik eta handiagoa da. Are eta gehiago, Donostia Sustapenak Garberaren zabalkundeak izango zuen eraginari buruz egindako txostenean, besteak beste, zioen irekiera horrek 24 komertzio txiki ixtea eta establezimendu horietan 72 lanpostu galtzea eragingo zuela.

Baina, epe motz-ertainera, ez da zaila aurreikustea datu horiek okerrera egin dezaketela. Izan ere, etorkizun gertukoan ditugun erronka handiek, hala nola, krisi ekologikoa eta horri lotutako mugikortasun ereduak eraldatu beharra, zalantzan jartzen dituzte merkataritza-gune handietako lanpostuak.

Agortutako eredu baten aurrean gaude, eta erabakiak hartzeko garaia da. Donostiarron ongizatea bermatzeko bizitzaren zerbitzura egongo den ekonomia bat behar dugu.

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

Lurraldearen eta komunitatearen beharretara doitutako ekonomia bat, gertukoa, auzoak edo herriak dituen baliabideak ahalik eta egokien aprobetxatuko dituen. Tokiko merkataritza, zentzu honetan, ongizatearen dimentsio ekonomikoa bermatzeko agente garrantzitsua da. Ez alferrik, auzo edo herri bizitza eta tokiko merkataritzaren osasuna loturik doaz. Bizitasuna, argitasuna eta segurtasuna ekartzeaz gain, egunerokotasunean behar ditugun produktu eta zerbitzuak etxetik gertu eskaintzen dizkigu. Jakin, noski, badakigu ongizatea ez dela dendetan saltzen, baina gertutasunak balio erantsia ematen dio txikizkako merkataritzari. Konfiantzazko eta elkarrekikotasun harremanak sustatu eta sare sozialak sendotzen ditu, eta horiek, bizitza asegarria ziurtatzeko ezinbesteko aldagaiak dira. Robert Putman ikerlariak esan bezala, pertsona batek dituen giza harremanen sakontasuna eta irismena baitira zorientasuna diagnostikatzeko parametrorik esanguratsuenak.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berehalakoan hartu ditzala Donostian merkataritza-gune handien irekiera eta zabalkunde berriak mugatzeko neurriak, betiere kontsumo lokala, ekoizpen lokala eta banaketa lokala sustatzeko bitartekoak handitzearekin batera.

Donostian, 2021eko abenduaren 15ean

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**